HERRI TXIKIEN ETORKIZUNA III
EL FUTURO DE LOS PUEBLOS PEQUEÑOS III
LE DEVENIR DES PETITS VILLAGES III

2017-11-10

Antzin / Ancín (Nafarroa / Navarra)

Bideo1 eta Bideo2

GAZTELANIAKO TALDEA

Aurreko foroetako ondorioei egindako ekarpenak eta iruzkinak:

- Errealitatearen ikuspegi idealista, hiritik egindakoa (?)
- Hezkuntza eta osasuna funtsezkoak dira herri txikien iraupenerako
    - Landa-eskolak oso garrantzitsuak dira, herritarrak finkatu eta lurrarekiko lotura sortzen dutelako
    - Antzinen kasua: eskola desagertzear egon zen, ikasle gutxi zituelako. Nafarroako Gobernuari eskatu zioten zonako eskola bihurtzea eta D hizkuntz eredua ezartzea.
    - Gaur egun inguruko 20 ikasle baino gehiago ditu eta Nafarroako Gobernuak garraioa eta jantoki-zerbitzua bermatzen dizkio.
- Turismoa eta zerbitzu-sareen sorkuntza garrantzi handikoak dira, herriak suspertzeko tresna gisa.
- Networking-espazioak eta sareak (hirugarren espazioa) sortu behar dira udaletan; herrietan industria- eta teknologia-esperientziak egokitu eta balio propioak berreskuratu eta kapitalizatu egin behar dira; ekintzailetzaren ikuspegia aldatu behar da.
- Neurri politikoen ondorioak ez dira beti positiboak izaten (adibidez, Bide Berdea, Lokizeko mendilerroa…).
- Batzuetan kanpoko ikuspegia behar izaten dugu gauza berriak eta arazoei irtenbideak «asmatzeko».
- Premiazkoa da tradizioen, historien, gauzak egiteko moduen nahiz tokiko memoriaren inbentarioa egitea… Hori guztia ere herriaren aberastasuna da.
- Herriek badute abantaila handi bat hirien aldean: ekintzailetzari lotutako gauza berriak egiteko aukera, eta beti egoki dimentsionatuta.

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

- Euroeskualdea, nazioartekotzeko eta Europako proiektuak burutzeko aukeratzat.

Zer, nola eta nor

- Kudeaketa independentea (autogestioa) eta kooperatibismoa dira eredu posibleetako batzuk.
- Herriaren eta eskualdearen potentziala (ondarea, produktuak, ohiturak, historia, natura, tradizioak) ezagutu, baloratu eta zabaltzea, eta adin guztietako pertsonak biltzea ildo horretan.
- Malgutasun handiagoa administrazioan.
- Hirietan ezjakintasun handia dago herriei buruz. Haurrengan jarri behar da indarra, handitzen direnean herrietan bizi nahi izatera bultzako dituzten loturak eta hurbiltasunak sortzeko.
    - Adibidez: hiriko haurrentzako udalekuak. Herritarrek herria erakutsiko diete eta ezagutza transmititu. Gainera, herriko haurren adiskide egingo dira.
    - Kultura-eten itzela dago, eta landa-munduarekiko errespetu gutxi. Horretaz jabetu beharko genuke.
- Ezinbestekoa da gazteak inplikatzea herrian herriarentzat hartzen diren erabaki eta ekintzetan.
- Inguruak eskaintzen dituen baliabide guztiak aprobetxatu behar dira eta denbora, ahalegina eta borondatea eman.
- Etxebizitzaren gaia: ezin da udako txaletak eraikitzen utzi; bai, ordea, herriaren hazkundea ahalbidetuko duten etxeak, herrian hutsik dauden etxeak betetzeko aukeraz gain.
- Eskolek eta hezkuntzak funtsezko eginkizuna daukate:
    - Tradizioak, ohiturak, errespetua zabaltzeko
    - Haurrak ekintzailetza-kulturaz jabetzeko
    - Bertako kidetasun-kultura sustatzeko
- Herria eta eskualdea suspertzea:
    - Adibidez: ekintzailetza-jardunaldiak
    - Adibidez: merkaturatze-sarea (azoken eta merkatuen egutegia)
    - Adibidez: turismo-ibilbideak eta zerbitzuak sortzea (sarean)
    - Herri-baliabideak irekitzea aisialdirako, ikerketarako, berrikuntzarako, turismorako… eta ez soilik nekazaritza- eta abeltzaintza-alorrean.
- Herri-nortasuna sortzea, bertako ezaugarri berezietan eta indarguneetan oinarrituz, eta elementu propio guzti horien kontakizun berezia sortzea.
    - Lana: administrazioa ez ezik, herritarrak ere inplikaraztea eta, horretarako, laguntza-plataformak sortzea (sindikatuez gain),

EUSKO IKASKUNTZA Asmoz ta Jakitez

herritarrak konprometiarazteko eta lan-arrazoiengatiko exodoa saihesteko.

- «Hirugarren eremuaren» garrantzia, ideiak, proiektuak, esperientziak, arazoak eta irtenbideak partekatzeko.
- Herrietako biztanleak «finkatzeaz» gain, herrien garrantziaz jabetuta dauden pertsonak sortu nahi ditugu (herrian bizi ez arren).
- Belaunaldi-arteko ekintzak eta ekimenak bultzatzea, hala enpresa-alorrean nola alor sozialean (boluntariotza, adinekoentzako laguntza…).
- Zonako alkateen sarea suspertu eta gainerako herritarrentzat ere zabaltzea, aliantzak eta auzolana sustatzeko.

EUSKARAZKO TALDEA

Gure abiapuntua: herri txikien etorkizunari buruzko problematika azken urteetan "landa-garapen" izenaren azpian kokatu diren politika eta ekimenetatik haratago doa. Nahitaez landa garapenarekin uztartu behar da, baina erronka zabalagoa da, aberasgarriagoa, beste alderdi batzuk barnebiltzen baititu: herrien bizitasuna, lehen sektoreko jarduerari lotuta dagoen bizi-antolamendua, balio-sistema, antolakuntza, naturarekiko harremanak, komunitatearen artekoak, etab.

KONTZIENTZIAZIO/SENSIBILIZAZIO BEHARRA

Gure planetak krisi ezberdinak bizi ditu: ekonomikoa, ekologikoa, soziala, zaintza lanena, baloreena. Merkatuaren logikari, kontsumismoari eta mundializazio prozesuek ekarritako dinamika hegemonikoei aurre egiteko, gizartearen kontzientziazio eta sentsibilizazio behar handia dago. Nola bizi gara? Nola harremantzen gara gure artean? Nola elikatzen gara? Nondik dator jaten duguna? Nork ekoizten du? Zein baldintzatan? Zer arropa/aisialdi/turismo kontsumitzen dugu? Ze gizarte utziko diegu gure seme-alabei? Gizarte sostengarri baterantz joateko beharrezkoa da norberak eta era kolektiboan galdera hauek erantzuten hastea. Ezinbestean, herritarren kezkak eta nahiak politika publikoetan gauzatu beharko dira.

Herri txikiak korronte nagusi horren aurkako erresistentzia gune moduan kokatu ditzakegu, bereziki, nahi badugu, gauzak aldatzeko eta aldarazteko espazio izan daitezkeelako. Haien biziraupena ziurtatzeko sostengarritasunaren dinamikan eta elkartasunaren eta lankidetzaren parametroetan kokatu beharko dira.

EUSKO IKASKUNTZA Asmoz ta Jakitez

Kontzientziazioa gizartean, orokorrean, baina baita herrietan bertan ere, herriaren garapenean lan egitera kanpotik datorren jendeari trabarik ez jartzeko eta galduta dauden hainbat balore/ekintza berreskuratzeko, auzo-lana adibidez.

HERRIETAN BIZITZEARI BURUZKO NARRATIBA/DISKURTSO BAT SORTZEKO BEHARRA

Bereziki gazteei zuzenduta, herriko bizitza interesgarri eta aukera moduan ikustarazteko. Errelato hori interesgarria litzateke eskoletan, hezkuntza munduan eta administrazioan zabaltzea, landa-gunean lan egin eta bizitzea aukera erreal moduan ikusi dadin. Errelato horretan ezinbestekoa da herrietako balore propioak, herriko kulturarenak, berreskuratu eta azpimarratzea: komunitatea, komunitarioa, auzo-lana, elkartasuna…eta herrira irits daitezkeen pertsonei transmititzea. Hori bai, narratiba honen transmisioa XXI. mendeko baliabideak erabiliz egitea.

Konturatzen gara kanpotik herrietara datozenen eta herriko jendearen artean gatazka kulturala eman daitekeela. Integrazio maila handiagoa izanen dela aharik eta lurrari lotutako jarduera ekonomiko batean lan egiten badute etorri-berriek. Gatazkak saihesteko eta diskurtso hori barneratzeko ekimen kulturalak garrantzitsuak dira. Kultura garrantzitsua da kohesio-elementu gisa.

Bestalde, azpimarratu behar da ezin dela diskurtso bat sortu benetan herrietan oinarrizko bizi-baldintzak segurtatuta ez badaude: lana, etxebizitza, eskola, osasun-zerbitzuak, aisia. Udalen eta beste administrazio mailen konpromisoa beharrezkoa da diskurtso hori praktikara eramateko.

LEHEN SEKTOREA, HERRI TXIKIEN ERDIGUNEAN

Lehen sektorearen zentralitatea herri txikietan, baina eredu sostengarri bati erantzungo dioten beste ekimen batzuk, beste sektore batzuetakoak, beharrezkoak dira herrien biziraupena segurtatzeko.

Laborantzari lekua eman behar zaio, lagundu, atxiki, birsortu, eta botere publikoak horri begira jarri behar dira, adibidez lurren erabilera funtzio horretarako sustatuz, baina beste sektore interesgarri batzuk ezin dira ahaztu: biomasa edo energiari lotutako proiektuak, nekazal produktuen salmenta, landa turismoa, etab.

Gainera, herritarrengandik beraiengandik sortuko diren iniziatibak, kooperatibak beharrezkoak dira, beti konponbideak kanpotik/gobernutik etorri behar izan gabe. Gero esperientzia horiek politika publiko bilakatu daitezke.

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

Azpimarratu behar da laborantza ez dela soilik jarduera ekonomiko gisa ikusi behar, baizik era indarra eman nahi zaio laborantzari lotutako balio-sistema eta elkarkidetza ereduari.

HERRI TXIKIEN SAREA

Saretzearen ideia bi norabidetan ulertuta:

Batetik, ezagutza, konpetentziak eta esperientziak partekatzearen beharra, elkarrengandik ikasteko, beste aukera batzuk daudela ikusteko, balio diguna eta ez diguna bereizteko. Honi lotuta, *Kasuen edo Esperientzien Atlasa* egitearen beharra ikusi da, era birtualean, esperientzia sozio-ekonomiko-kultural arrakastatsuen erakus-lehio gisa. Eusko Ikaskuntza izan daiteke erakunde egokia definitu, plana egin eta bere elaborazioan lagunduko luketen agenteak identifikatzeko.

Bestetik, saretzea herrien arteko lankidetza sustatzeko bide gisa, besteak beste herrien ahotsa ozenago entzun dadin administrazioaren aurrean beren eskariei erantzun diezaieten.

Saretzea maila ezberdinetan eman behar da, elkarte edo erakunde estatiko zehatz batean mugatu gabe.

ERAGILEAK

Hiru planotan bereizten ditugu:

- Instituzioak: udalak, administrazioa.
- Eragileak: elkarteak, eragile kulturalak, unibertsitateak. Azken hauek, ezagutzaren mundua, mundu akademikoa aliatu moduan bilatu behar. Momentuz herrigintza prozesuetatik urrun dagoen mundua da, baina beharrezkoa litzateke ereduak, patroiak ekarri eta beste maila bateko ikerketa burutzeko.
- Herritarrak eta sektore pribatua.

EKINTZA KONKRETUAK

- Herrietan lur-poltsak eta etxeen-poltsa sortzea, kanpoko jendea erakartzeko asmoa dutenentzat, adibidez ondorengorik ez duten nekazari/abeltzainainekin hitzeginez edo hutsik dauden etxeekin.
- Analisi baten beharra: nondik gatoz, nola gaude, nora jo nahi dugun eta bereziki, zer egingo dugu horretarako. Analisi hau udalek berek edo eskualde mailako erakundeek sustatu dezakete baina erantzunak herritarrengandik etorriko dira.

EUSKO IKASKUNTZA Asmoz ta Jakitez

- Kontzientziazio tailerrak (kontsumoa, elikadura, aisialdia, etab.) eta hausnarketa-guneak sustatu.
- Kooperatibismoa, iniziatibak bultzatzeko diru-laguntza publikoak.
- Lege-aldaketa: malgutasun handiagoa, landa-eremurako lege bereziak, diskriminazio positiboa.
- Sare laburrak sortu: kontsumitzaile eta ekoizleen artean.
- Herri-lurren kudeaketa udalek berreskuratu.

EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

ZER / QUÉ	NOLA / CÓMO	NORK / QUIÉN
Lehen sektore indartsua + besteek / Sector primario fuerte + otros Populazioa mantendu edo gehiago erakarri / Fijar población o atraer nuevos vecinos Indarra eta independentzia / Fuerza e independencia Berrikuntza erakarri / Atraer innovación Tokiko berezitasunak ezagutu, zabaldu eta ustiatu / Conocer, difundir y aprovechar las potencialidades locales Herri eta landarekiko loturak indartu / Fortalecer vínculos con la tierra y el pueblo	• Reinventar / Birpentsatu • Kooperatibismoa / Cooperativismo • Ekintzailetasuna / Emprendimiento • Zirkuitu motzak (ekoizle kontsumitzaile) / Circuitos cortos (productores consumidores) • Etxebizitza eta lurren boltsak/ Bolsas de tierras y viviendas • Bizitzarako baldintzak bermatu / Garantizar condiciones de habitabilidad • Landa eskolak eta osasun zerbitzuak / Escuelas rurales y sanidad • Kultura kohesiorako elementu gisa / Cultura como elemento de cohesión • Sareak / Redes • Autogestioa / autogestión • Lurren kudeaketa Udalen esku / Gestión de las tierras en manos de Ayuntamientos • Hirugarren espazioa / Tercer espacio • Co-working • Legeen malgutasuna / Flexibilizar las normativas • Kasu eta esperientzien Atlasa /Atlas de casos y experiencias • Ondare natural, artistiko, kultural eta materiagabearen inbentarioa / Inventario de patrimonio natural, artístico, cultural e inmaterial (humano) • Errekurtsoen kapitalizazioa / capitalización de los resursos • Tokiko dinamizazioa (turismoa, jaiak, zerbitzuak, enpresak) / Dinamización local (turismo, fiestas, servicios, empresas…) • Eskolak • Herrietako bizitzaren inguruko Narratiba edo diskurtso berriak sortu / Crear nuevos discursos o narrativas en torno a la vida en los pueblos • Kontzientziazio tailerra / talleres de concienciación	Instituzioak / Instituciones Eragileak / agentes Herritarrak eta arlo pribatua / sector privado

EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez